

# IRAGARKIA

## 188. ALDIZKARIA - 2023ko irailaren 7a

### 2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

#### 2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK BAZTAN

### **Deialdia, kirol-jarduerak garatzeko dirulaguntzak emateko (2023). Laburpena**

DDBN (Identifikazioa): 713826.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Haren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean aurki daiteke (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/eu/convocatoria/713826>).

Baztango Udalak, 2023ko abuztuaren 24ko tokiko gobernu batzordean onartu ditu 2023an Baztango kirol-klubek ohiko kirol-jarduerak garatzeko dirulaguntzak eskatzeko deialdi publikoa arautzen duten oinarriak.

Lehendabizikoa.–Onuradunak.

Baztanen egoitza soziala duten kirol-klubek hartzen ahal dituzte oinarri hauen xede diren dirulaguntzak.

Bigarrena.–Xedea.

Oinarri hauen helburua da Baztanen egoitza soziala duten kirol-klubek ohiko kirol-jarduerak garatzera zuzendutako dirulaguntzak norgehiagoka emateko araubidea jartzea.

Hirugarrena.–Oinarri arautzaileak.

<http://www.baztan.eus>

Laugarrena.–Eskabideak aurkezteko epea.

Eskaerak egiteko epea deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik

kontatzen hasita, 30 egun naturalen barnean. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da. Eskabideak ezarritako epez kanpo aurkezteak onartuak ez izatea ekarriko du.

Baztanen, 2023ko abuztuaren 24an.–Alkatea, Fernando Anbustegi Goñi.

Iragarkiaren kodea: L2312364